



Urriaren 14an patera bat hondoratu zen Cadizen, Trafalgar lurmuturraren inguruan. Hiru lagun bizirik agertu ziren, hamar gorpu aurkitu zituzten eta gainerakoak desagertuta daude. Gertakari latz horretan, Atxondon bizi diren hiru lagunaren senitartekoak hil ziren, eta eguaztenean elkarretaratzea egin zuten haiei azken agurra egin eta senitartekoei babesa emateko. ANBOTOK familiartekoak galdu dituzten pertsona horietako bigaz berba egin du, Soufianegaz eta Bilalegaz. • 4

Patera hondoratuta Cadizen hil diren errefuxiatuei azken agurra egin diete Atxondon



"Erresilientziaren diskurtsoaren alderdi soziala berreskuratu behar da"

Durango | Bazterkeriaren gaien erreferentziatzkoa den Foessa fundazioak Ainhoa Díez gizarte langile eta doktore durangarraren tesia publikatu du; Diezek azaroaren 11n aurkeztuko du lana, Deustuko unibertsitatean. • 2-3



Alberdi okindegiek etapa berri bati ekin diote, izen eta ogi hornitzaile berriekin

Durangaldea | Ogia ekoizten zuen Panificadora Alberdi enpresa itxi egin dute asteon. Bertako langileek eguaztenean izan zuten azken laneguna. Ogia handik hartzen zuten eskualdeko hamar okindegiri eragin die horrek. Batzuek atea itxi dituzte edo arduradun berriekin jarraituko dute; beste batzuek lokala aldatuko dute eta hainbatek orain dauden tokian jarraituko dute. Hori bai, denek beste hornitzailearen bat aurkitu behar izan dute. Orain, hornitzaile bati baino gehiagori eskatu ahal diote ogia, eta batzuek baserriko ogia gehitu diote euren eskaintzari. • 5





LIKIDAZIOA jubilazioagaitik

Interiorismo



Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango - info@mueblesgandarias.com - Tel.: 946 810 722



Durangoko Lanbideren bulegoa.

Epe luzeko langabeak "hondoratuta" egotetik ateratzea, gizarte ongizatea mantentzeko erronka nagusietariko bat

Bazterkeria aztertzen erreferentia den Foessa fundazioak nabarmendu du epe luzeko langabeen egoera "kezkagarria" dela, eta okerrera egin duela

ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO

Epe luzeko langabeziaren auzia gizarte ongizatea lortzeko erronka nagusietariko bat dela esan daiteke; izan ere, enplegua urteetan edukitzeak pisu handia izan du gizarteratzean. Horrez gainera, ongizate estatu horretan mantentzeko beharrezkoak diren diru sarrerak bermatu beharko lituzke. Ez da arazo berria. Azken hoge hilabeteetako osasun krisiak ondorioak areagotu egin dituela nabarmendu dute hainbat adierazlek. "Orain artean, lana gizarteratzeagaz edo integrazio prozesuekin lotu izan da. Azken urteetan, baina, lan baldintzen prekarizazioagaz lana edukitzeak ez du bermatzen gizarteratzea. Gainera, 2008ko krisialdi ekonomikoa gaingintu ezinik ibili dira familia zaurgarrietariko asko. Ondorioz, handitu egin da pobrezia eta gizarte bazterkeriaren arrakala", azaldu du Ainhoa Díez gizarte langile durangarrak. Are gehiago, Foessa fundazioak osasun krisialdiak arrakala hori sakon-

tzea eragin duela nabarmendu du bere azken txostenean. "Jende askok bere bizitzako ia esparru guztietan ikusi du bere burua arriskuei aurre egiten: osasun ziurgabetasunari, diru sarreraren galerari, isolamenduari, langabeziari, buruko osasunagaz loturiko gaixotasunei... Dei egin behar

Arazoa ez da berria, baina azken hoge hilabeteetako krisiak eraginak areagotu ditu

diogu gizarteari, krisialdiaren inpaktua atsekabegarria eta oso kezkagarria delako".

Foessa fundazioa gai sozialak ikertzeaz eta hauek zabaltzeaz arduratzen da, besteak beste. 1965ean sortu zen, eta 1995etik garapena eta bazterkeria soziala aztertu ditu Espainian eta bertako autonomietan. Hain zuzen ere, Foessak Ainhoa Díez gizarte langile durangarraren tesia sari-

tu du aurten. Fundazioak zortzi aldagairen arabera neurtzen du bazterketa: enplegua, kontsumoa, osasuna, hezkuntza, politika, etxebizitza, gatazka soziala eta isolamendu soziala. Horien artean, nabarmendu dute etxebizitza, energia, ura eta Internetarako sarrera "praktikan asetzen ez diren giza eskubideak" direla, eta, "lana edukita ere", zailtasunak dituzten familiak daudela. Espainiako INEren azken datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 23.300 lagun urte bitik gora dabilta lan bila.

Pertzepzio aldaketa

Epe luzeko langabeziak bestelako ezaugarriak ere garatu ditu azken urteetan, besteak beste gizartean langabearekiko dagoen pertzepzioa. "Lehen, beste modu batera ulertzen zen langabezia. Sistema kapitalista batean bizita, sistemaren ziklo aldaketetan biktima lez ikusten zen langabea. Gaur egun, diskurtsoa aldatu egin da, eta zama handia ipintzen da pertsona horrengan.

Kriminalizatzeko joera bat dago, eta lanik egiten ez duenak ez delako gura izaten dela esaten da", azaldu du Díezek. Foessaren txostenaren arabera, gainera, azken krisialdia eragin zuzena edukitzen ari da orain arte gizartearen oinarrikerik sendoenetariko bat

Adin txikikoak dituzten gurasoak eta migratzaileen kolektiboak dira kolpatuenak

izan den horretan, familiaren gan, hain zuzen ere. "Joera hau oso kezkagarria da, biztanleriaren garapen psikoemotionalan izan dezakeen eraginagaitik", gaineratu du Díezek.

Lau familia tipologiak

"Tradizionalki" kolpatuenak diren kolektiboetariko bi adin txikikoak dituzten familiak eta migranteak dira, Foessaren esa-

netan. "Adin txikikoak dituzten etxeen kasuan, bazterkeria sozialean jausteko arriskua %27koa da (umerik bako etxeetan %18koa da); familia ugarien kasuetan, %47koa da arrisku hori, eta adin txikikoak dituzten eta guraso bakarra diren familien ia kasu erdietan dute bazterkerian jausteko arriskua. Gurasoa emakumezkoa den kasuetan, are nabarmenagoa da arrisku hori", adierazi du. Bere tesian, Díezek lau familia tipologia banatu ditu epe luzeko langabeziaren inpaktuaren arabera, eta honi aurre egiteko estrategien arabera: begira dauden familiak, nabigatzen dutenak, ur gainean mantentzen direnak eta hondoratuta daudenak. "Hondoratuen multzoan dauden familiak, adibidez, zaurgarritasun egoera larri batean daude, eta hainbat aldagairen ondorioz hondoratuta jarraitzen dute. Lana edukita ere, ez dute beste babes faktorerik, eta ezinezkoa zaie ur gain horretara irtetea", gaineratu du.

“Gura baduzu lortuko duzu' diskurtsoa ez da ona; baliabideak ere behar dituzu aurrera egiteko”



Ainhua Díez Sanz

Gizarte langilea

DURANGO | 1991

ERREPORTAJEA • A.M.

Ainhua Díez Sanz durangarrak 'Afrontamiento y resiliencia frente al impacto del desempleo de larga duración en Bizkaia' tesia publikatu du. Foessa fundazioak bere tesia publikatu eta gero, Díez pozik dago, izan ere, fundazioa "erreferentziakoa" da gizarte bazterkeriaren gaia jorratzen. Autoreak krisi ekonomikoaren ondorioak, honek enpleguan izandako eragina, eta familiak eta norbanakoek epe luzeko langabeziari aurre egiteko dituzten estrategia eta erresilientzia aztertu ditu besteak beste. Gizartean geroago eta hedatuago dagoen fenomeno dela nabarmendu du.

Epe luzeko langabeziaren eragin kuantitatiboa bakarrik ez, auzi soziala dela eta horrela tratatu behar dela diozu tesian.

Master amaierako lana egiterakoan, erresilientzia kontzeptua oso psikologizatua dagoela ikusi nuen. Pertsona bakoitzak edo familia batek modu batera edo bestera erantzun diezaioke epe luzeko langabezia egoera bati, baina ez da bakarrik norberaren gaitasun pertsonalen arabera. Inguruan duzun azpiegitura edo babesa ere oso garrantzitsua da. Erresilientziaren diskurtsoa orain arte gaitasun pertsonalari eta pertsonen arteko

harremani lotu zaie batez ere, baina alderdi soziala ere errekuperatu behar da. 'Gura baduzu, lortuko duzu' diskurtsoa ez da ona. Baliabideak ere eduki behar dira horrelako egoera bati aurre egin edo hortik irteteko.

“Erresilientziaren diskurtsoa orain arte gaitasun pertsonalari lotu zaio batez ere, baina alderdi soziala ere errekuperatu behar da”

Zein metodologia erabili duzu ikerketarako?

Sakoneko elkarrizketak egin ditut, azken finean pertsonen bizipenetatik osaturiko errelatoa egin gura nuelako. Epe luzean lanik barik zeuden emakumezkoak eta gizonezkoak elkarrizketatu ditut; funtsean, jasandako inpaktua aztertu dut, baita ere gero zelan egiten dioten aurre egoerari. Maila indibidualeko inpaktua osasun mentalean zein fisikoan ikusten dut, eta hartu-emanetan zelan eragiten duen, edo etxeko dinamikan, bikote hartu-emanetan zein seme-alabekin. Inpaktuaren alderdi desberdinak ikusita, bakoitzak egoerari zelan aurre egiten dion ikusi

dut, eta emaitza horien arabera lau familia tipologia agertu zaizkit. 30 bat lagun elkarrizketatu ditut, horien artean seme-alabak mantendu behar dituztenak.

Lanaren abiapuntua 2008ko krisi ekonomikoan eta haren eraginean kokatu daiteke. Gaur egun, krisi berri baten atarian gaudela diote. Ikasi dugu ezer aurrekotik?

Koronabirusaren agerpenak gure ekonomia zelako hauskorra den erakutsi du. Ikusi da ekonomiak

“Helduon kasuan, lana nortasunaren zati garrantzitsu bat da, eta hori galtzean eragina du autoestimuan, adibidez”

ezin duela aurrera egin denok etxean geratzen bagara. Alde positiboa nabarmentzekotan, osasun, gizate zerbitzu eta hezkuntza sistema publiko indartsuak edukitzeak zelako garrantzia duen agerian geratu da; inbertitu ezean, arrakala handitu egingo da. Edozein krisi ekonomikorik erroan dauden gabeziak azalertzaren ditut, eta hauek begi bistan geratu dira oraingoan ere. Honek guzti honek buruko gaixotasunean izan duen eragina ere nabarmendu da; hau da, hartu-eman edo kontaktutak buruko eritasunetan eduki duen eragina, eta hemendik aurrera are gehiago kontuan hartzea espero dut.

Zelan eragiten du epe luzeko langabeziak?

Patroi batzuk betetzen dira. Azken batean, helduon kasuan, lana nortasunaren zati garrantzitsu bat da. Zati hori galtzean, ematen du ez duzula beharbesteko baliorik, eta horrek eragin zuzena du, adibidez, autoestimuan. Elkarrizketatueta-riko hainbatek esan didate ezertarako balio ez duten sentimendua dutela. Adibide bat ematearren, imajinatu lan bila dabilen 50 urtetik gorako jendea. Jende horrengan frustrazioa nabaritzen da. Egoera horretan, askok depresioa eta antsietatea garatzen dituzte. Eta ez da bakarrik lana ez edukitzea. Lana diru sarrera nagusia izaten da, eta, beraz, diru hori beharrezkoa da etxea ordaintzeko, arropa eta janaria erosteko... Diru falta horrek, familia mantendu ezin horrek, estresa eragiten du eta hori kontuan hartu beharko litzateke.

Pertsona horiek sentitzen duten bazterketa ez da izango azalekoa edo izugarria beharbada, baina egunerokoa da. Eta, askotan, langabezia erabaki pertsonal bat baltz lez lotzen delako agertzen da. Askotan, ez da kontuan hartzen gizartean badagoela kolektibo bat ezin duena lanik egin, eta hori kriminalizatu egiten da.



Ainhua Díezen tesiaren hainbat ale.



Ezkerretik hasita, Soufiane, Rachid eta Bilal.

"Bagenekien senitartekoak etortzekoak zirena, eta jaso genezakeen berririk txarrena jaso dugu"

Cadizen patera bat hondoratu zen joan zen egunean. Senitartekoak galdu dituzten eta Atxondon bizi diren errefuxiatu bigaz egon da ANBOTO. Soufianegaz eta Bilalegaz

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Axpeko aterpetxean tristura da nagusi azken egunotan. Bertan bizi diren zazpi errefuxiatutik hiruk familiartekoak galdu dituzte itsasoan. Joan zen egunean Cadizeko Trafalgar lurmuturraren inguruan hondoratu zen pateran zihazozen.

Joan zen asteburuan, jaso zezaketen berririk txarrena jaso zuten Soufiane, Bilal eta Sadik errefuxiatuek, Cadizen hondoratu zen panteran euren senitartekoak zeuden eta. ANBOTO senitartekoak galdu dituzten bigaz batu da, Soufianegaz eta Bilalegaz. Rachidek interprete lanak egin ditu. "Bagenekien etortzeoak zirena. Etxekoekin berba egiten dugu lantzean behin, eta euren notizien zain geunden. Zoritxarrez, berririk txarrena jaso dugu", adierazi dio Bilalek ANBOTOr. "Badakigu paterako bidaia oso gogorra eta luzea dena, gu ere horrela etorri gara eta. Hiru egunez, gau eta egun, itsasoan, hotza, euria... Ez da erraza. Eta horregaitik, senitartekoen bat edo lagunen bat datorrela dakigunean oso urduri egoten gara. Baina inor ere ez dago prest horrelako mezu bat

jasotzeko", azaldu du Rachidek.

Bilali bost senitarteko hil zaizkio Trafalgar lurmuturraren inguruan hondoratutako pateran, eta Soufianeri hiru. "Sadiki emaztea eta bost urteko semea hil zaizkio. Sadikek ez zekien emaztea eta semea etortzekoak zirela, emazteak sorpresa bat eman gura zion eta", adierazi du Rachidek.

Rachidek ez du senitartekorik galdu Cadizeko gertakarian, baina etxean denak "lur jota" daudela azaldu du. "Guk ez daukagu etxeke inor hemen. Axpeko aterpetxean gaudenok familia bat osatzen dugu, eta baten ezbeharra denon

ezbeharra da. Oso triste gaude denok", jarraitu du Rachidek.

Diru bilketa

Atxondon bizi diren hiru lagunek euren familiartekoen gorpuak aberriratzeari dute helburu orain, baina, horretarako, dirua behar dute. "Gorpu bakoitza aberriratzeari dirutza bat da eta ez daukagu horretarako gaitasunik", adierazi du Rachidek. Beraz, Atxondoko Harre-ra Herriko kideek diru bilketa bat hasi dute eurei laguntzeko. Horrez gainera, eguaztenez elkarretartzea egin zuten Atxondoko plazan, hildakoei azken agurra emateko.



Atxondon eguaztenean egindako elkarretaratzea.

Hezkuntzan eta gazterian hobetzea besteak beste, Elorrioren helburua

Aztiker Soziologia Ikerguneak egindako txostenak
markatuko du udal jardueraren egunerokoa

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikuan Elorrioko Udalean egindako prentsaurrekoan, Aztiker Soziologia Ikerguneak azken hileetan egindako txostenaren emaitzak jakinarazi zituen gobernu taldeak. Txosten horrek markatuko du udal jardueraren egunerokoa.

Ikerketak ondorioztatu du etxebizitza, gazteen arazoak, saltoki txikiak, egoera zaurgarrian dauden pertsonen egoera eta espazio publikoen mantentze-

lanak direla herritarrek lehen-tasuneko gai lez nabarmendu dituztenak, eta gai horiek izango dira udalaren epe laburreko ekintza planaren oinarriak. "Ekonomiaren ikuspuntutik, pandemiak eragin handia izan du udal kudeaketan, eta murrizketa handia ekarri du udalaren diru sarreretan. Testuinguru horretan, ezinbestekoa deritzogure hasierako Gobernu Plana berrikusteari", adierazi zuen Idoia Buruaga alkateak.



Elorrioko EH-Bilduko zinegotziak.

Bitxigintza ikastaroa antolatu dute Berrizko Kultur Etxean

hartzaileek konposizio propioak sortzen ikastea izango da helburua: eratzunak, lepokoak, esku-muturrekoak eta paparrekoak, besteak beste.

Berrizko Udaletik jakinarazi dutenez, ikastaroa martitzetan izango da, 18:00etatik 20:00etara bitartean, eta bertan parte hartzeko aurrez izena ematea beharrezkoa izango da. 70 euro ordaindu behar dira ikastaroan parte hartzeko.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak bitxigintza ikastaroa antolatu du datozen hiletarako. Azaroaren 2an hasi eta urtarrilaren 25era arte iraungo du. Ikastaroa Berrizko Kultur Etxean egingo dute eta parte

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko urriaren 22a
19. urtea - 867. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta
 Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba
 Derteano Bilbao, Maialen Suazubiskar Gallastegi,
 Aritz Maldonado Zabala.
Maketazkoa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxeigibel.


PEFC™
PEFC/14-38-00225

PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzailearen
ziurtagiria dauka
www.pefc.es



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Alberdiren lau okindegi itxi egin dituzte eta eskualdeko gainerako sei ogi ekoizle berriekin jarraituko dute

Panificadora Alberdi ogi enpresan, eguaztenean izan zuten azken laneguna; eskualdean 10 okindegiri eskaintzen zien zerbitzua

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Iurretako Panificadora Alberdi enpresa asteon itxi dute, ia ehun urteko ibilbidearen ondoren. Bertako zazpi langileek eguaztenean izan zuten azken laneguna. Ogia eta gozogintza egin, eta eskualdean izen beragaz funtzionatzen duten okindegietara banatzen zuten.

Azken urteetan, ogiaren ekoizpenak behera egin du Panificadora Alberdin, eta ateak ixtearena ortzemuhan ikusten zen erabakia dela uste du Jaime Intxaustik, enpresan ordezkariak bakarria duen CCOO sindikatuko ordezkariak. Hedadura handiko supermerkatuen kontinentzia da arrazoiatariko bat, Intxaustiren esanetan. “Supermerkatu handiek kostuko prezioaren azpitik saltzen dute ogia. Erosleak erakartzeko erreklamua da. Ondoren, erosle horiek supermerkatuan erosten dituzten gainerako produktuekin lortzen dituzte irabaziak. Enpresa txikiek ezin dute lehiatu horregaz”, baloratu du.

Enpresako arduradunak langileekin akordio batera heldu direla azaldu du Intxaustik. “Alde biek ipini dute eurenetik apur bat, eta ez da arazorik egon”, azaldu du.

Okindegiek, ateak itxi ala ez?

Durangaldean, Alberdi izeneko hamar okindegi egon dira. Lokalak enpresarenak dira eta orain arte alde bien arteko akordioaren bitartez funtzionatu dute. Orain, egoera eta baldintzak aldatu egin zaizkie eta honako hau da lehenengo hartu behar duten erabakia: aurrera jarraitu ala ez.

Lau okindegik ateak itxi dituzte. Iurretan zegoenak eta Durangoko hiruk: Matxinestarta kalekoak, Anboto kalekoak eta Askatasun Etorbidekoak. Iurretako denda zortzi urtean eraman duen Ruper Blancok bere kasua azaldu du. “Lehen ez nuen alokairurik edo argindarrik ordaindu behar. Orain, alokairua, argindarra, udaleko tasak eta abar ordaindu behar nituzke. Kontuak

atera ditut eta ez dit merezi zabalik mantentzea”, dio.

Anboto kalekoak arrazoi pertsonalengaitik itxiko du, eta Askatasun Etorbidekoak erretiroa hartuko duelako. Baina azken hori laster zabalduko dute berriro, arduradun berri batez. Izan ere, arduradun batzuek lokalez aldatzea erabaki dute eta horixe da Traña-Matie-nako Trañabarren kalean dagoen okindegiaren kasua. María Soledad Samosek bederatzi urtez gidatu duen denda orain hiru bat aste itxi zuen, betiko, eta azaroaren 1etik aurrera erronka berri bati ekingo dio Durangon, Askatasun Etorbidean. Matxinestarta kalekoak ere berriro zabaldu ditu ateak asteon arduradun berriekin.

Beste denda batzuek ere aldatu egingo dute lokala. San Fausto auzoko okindegikoek orain daudena utzi eta albo-alboan dagoen beste batean jarraituko dute euren ibilbidea. Azkenik, Durangoko Erretentxu kalekoa orain dagoen lokalean geratuko da beharbada, baina beste bat begiratzen ere badabiltza. Ez

dute baztertzen oraingoari eustea eta berri bat zabaltzea.

Aurrera jarraituko duten dendek ogia eta gozogintzako produktuak eskaintzen jarraitu dute. Denda guztiak bat datoz ezaugarri batean: ogiaz gainera bestelako produktuak ere saltzen dituzte, eta Muruetatorren dagoen okindegiko Isabel Urkiolaren ustez, “denda txikientzat ogia saltzea erreklamua bat da gero beste produktu batzuk saldu ahal izateko”.

"Denda txikientzat ogia saltzea erreklamua bat da gero beste produktu batzuk saldu ahal izateko"

Zabalik jarraituko duten dendetan, ogi berria saltzen dabiltza eguenetik. Lehen, Alberdi enpresakoa saldu behar zuten derrigorrez, baina aurrerantzean euren izango da erabakia. Batzuek lantegi batetik baino gehiagotatik ekarriko dute ogia. Esaterako, Erretentxuko

dendak baserriko ogiaren aldeko apustua egingo du besteak beste, eta Elorrioko Matzorri baserrikoa eta Izurtzako Antonio Txikikoa salduko ditu. “Kalitatearen” aldeko apustua da, dendako arduradunek azaldu dutenez.

Egunotan, galdera hau ere egin diote euren buruari okindegietako arduradunek: gustatuko ote zaie ogi berria bezeroei? Kezka hori badutela onartu dute arduradun gehienek. Horregaitik, Muruetatorreko Isabel Urkiolak honako hau egin du: aurreko astean, hornitzaile berriaren ogia probatzeko eman zien bezeroei, euren iritzia jasotzeko. “Hamarretik zortzik gustatu zaiela esan didate; beraz, itxaropentsu nago”, esan du. Usan-soloko enpresa batetik ekarriko du ogia. Zaldibarko arduradunak dio orain arte saldu duenaren antzekoa dela ogi berria, eta, beraz, gogokoa izango den esperantza du.

Azkenik, dendek izen berria aukeratu behar dute aurrerantzean. Gehienak pentsatzen dabiltza oraindino.

Lourdes Iriondoren abestiak gogora ekartzeko emanaldia, domekan, Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Domeka honetan, *Isiltzen joan zirenak* izeneko emanaldia eskainiko dute Garain. Ameli eta Xirrikitunen jostunek taldea arduratuko da horretaz. Taldeak Lourdes Iriondo kantariaren lanak interpretatuko ditu, era dramatizatuan. Iriondo Ez dok Amairu taldeko kidea izan zen, 60ko hamarkadan euskal kulturgintzaren berpizkundea eragin zuen korronteko kidea.

Emanaldia Elizaberrin izango da, 18:00etan. Bertara joan gura duenak lekua erreserbatu beharko du, udaletxera deituta (946816393). Gutxi gorabehera, 50 bat lagunentzat egongo da lekua.

Juan de Aranoak Zaldibarren egindako margolanei buruzko berbaldia, gaur

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibartarrek herrian dagoen margolan esanguratsu bati buruzko berbaldia izango dute bariku arratsalde honetan. Kontua da Zaldibarko ospitaleko kaperan Juan de Aranoa margolari bilbotarraren lan bat dagoela. Margolana “altxorra” da Gerediaga elkartearen berbetan, eta horri buruzko xehetasunak eskainiko dituzte gaur, liburutegi zaharrean, 18:00etan hasita. Gerediagak aurreratu duenez, gaia modu sakonagoan landuko dute Astola aldizkariaren hurrengo zenbakian. Dena dela, zaldibartarrek argitalpena ailegatu baino lehenago ezagutu ahaliko dituzte xehetasunak, gaia ikertu duten adituen eskutik.



Zaldibarko denda goizean baino ez dute zabaltzen orain; ikasketek ahalbidetzen badiote, arratsaldean ere zabaldu gura luke arduradunak.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Bonbardaketaren ondoren Durangoko hilerriko hobi komunetan lurperatu zituzten biktimak lokalizatzeko ikerketa hasi dute

Batetik, Gogora Institutuari hobi komunak non dauden topatzeko eskatu diote. Bestetik, deialdi bat egin dute hobi komunetan lurperaturiko 84 biktimen ondorengoak lokalizatzeko



Biktimak, Durangoko hilerrian. GEREDIAGA ARTXIBOA

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gerediaga elkarteak, Durango 1936 elkarteak eta Durangoko Udalak ikerketa bat hasi dute Martxoaren 31ko bonbardaketaren ondorioz

hobi komunetan lurperatu zituzten biktimak lokalizatzeko. Eraso hartan hildakoak Durangoko hilerria eraman zituzten bonbardaketaren egunean bertan eta os-

tekoetan, eta biktimetarik asko hobi komunetan lurperatu zituzten. Gaur egun, hobi komunetan lurperaturikoak 84 direla jakina da, Jon Irazabal historialariari

eskerrak. Baina arazoa da hobi komun horien kokapen zehatza ezezaguna dela gaur gaurkoz. Eta puntu horretan dago, hain zuzen ere, ikerketaren gakorik nagusietariko bat. Durangoko Udalak eskaera ofiziala egin dio Gogora institutuari. Hilerriko hobi komun horien kokapen zehatza non dagoen ikertzeko eskatu dio.

Ikerketagaz, gune duin bat atontzeko aukera zabaldu gura dute hobi komunetan daudenentzat

Bestalde, Gerediaga elkarteak, Durango 1936 elkarteak eta udala lanean hasi dira "ehortzitakoak identifikatu eta gaur egungo familiarteko eta ondorengoak lokalizatzeko". Hori dela-eta, Gogora Institutuak zabalduko diru-laguntza deialdi batera aurkeztu dute ikerlana. Azterketak hiru hilabeteko iraupena izango du, hemendik eta abendura bitartekoa. Amaieran, topaketa

bat egin gura dute lokalizaturiko senitartekoekin. Ikerketa honen helburua da Durangoko kanposantuko hobi komunetan lurperatutakoei "gune duina atontzeko aukera bat zabaltzea".

Urte askoko lana

Durangok bonbardaketa handia jasan zuen 1937ko martxoaren 31n. Ez zen eskualdean bonbardaturiko herri bakarra izan, baina Durangokoa izan zen biktimarik gehien eta hondamendirik handiena utzi zuen eraso.

2001ean, Jon Irazabalek bonbardaketari buruzko liburua kaleratu zuen. Bertan argitaratu zuen hilerriko hobi komunetan lurperaturiko senitartekoekin. Baina biktima horiei buruz informazioz ez dagoela dio Gerediaga elkarteak: "84 gizon-emakumeri buruzko erreferentzia bakarra izen-abizenak dira kasu batzuetan, eta, txarrean, lurperatu zituzten sasoiko plaken erreferentzia-zenbakia baino ez".

Identifikaturiko biktimen izen-abizenak ANBOToren web orrian daude ikusgai.

Urte askoko bidea, hobi komunetan daudenei duintasuna bueltatzeko

ANBOTOk 2016ko erreportaje batean jaso zuenez, Durangoko hilerrian hobi komun bi daude. Jon Irazabalek xehetasun guztiak kontatu zizkion Markel Onaindia kazetariari

MEMORIA • EKAITZ HERRERA

Durangoko eragileek urteak daramatzate bonbardaketan eta gerran isildutakoak argitara ateratzen. Memoria historikoa lantzeko ariketa da, biktimei duintasuna bueltatzea eta zor historikoa kitatzea helburu duena. Hilerriko hobi komunen gaiak hainbat alditan irten du ikerketaren mahai gainera, eta berripaper honek ere luze eta zabal landu zuen gaia 2016ko apirilaren 1eko alean. Hain zuzen ere, martxoaren 31ren urteurrenaren bihamunean.

Markel Onaindia kazetariak Jon Irazabalen ahotik jaso zituen hilerriko hobi komunen nondik norakoak. Irazabalen esanetan, bi lirateke zuloak, eta hilerriko sarreratik gertu egongo lirateke. Atetik sartu, beheerantz metro batzuk egin eta ezkerretara eginga. Hobiak egitearen ideia momentu larri hartako berehalako neurri bat izan zela azaldu zuen

Irazabalek: "Hildako piloa zegoen eta ez zekiten non zeuden etsaiak. Zulo bi egin eta bertan sartu zituzten hildakoak, beste edozein gerratan lez".

Lurperatzaileak esana

Hobiak elkarren ondoan egongo lirateke. Irazabalen berbetan, orduko lurperatzaile izan zenak esanda dakite zein den eremua. Lur gainean, erabili bako espazio bat igartzen da, baina ez dago bestelako argibiderik. Batallón Otxandianoko hildako batzuk ere badaude bertan, eta euren omenezko plaka bat egon zen denbora batez, norbaitek kendu zuen arte. Gaur egun, plaka horren ordezkotzat kaperako monumentuaren alboan dago.

Bestalde, Leizaola lehendakariaren sasoiko Eusko Jaurlaritzak erasoaren ondorioz Durangoko hilerrian lurperaturiko senitarteko bat publikatu zuen, eta han ageri dira hobi bietan dau-

den 84 pertsonen erreferentziak. Batzuen kasuan izen-abizenak datoz, beste batzuenetan miliziano zenbakiak, eta beste zenbait identifikatu ezinik ere ageri dira.

Zerrenda hori, baina, ez da Durangoko Udal Artxiboko Ehorzketen liburuan agertzen. Liburu horretan, bonbardaketako ehorzketek loturiko orriak falta dira. Luzaroan frankistei egotzi izan zaie orriak kendu izana, baina baliteke orriok Jaurlaritzak gorde izana, gero nazioarteko salaketa egin ahal izateko.

Durango 1937ko martxoaren 31n bonbardatu zuten lehenengoz, 08:30 aldera. Mola jeneral frankistaren aginduz, Italiar Aviazione Legionariako hegazkinak Kurutziaga kaletik sartu, eta Alde Zaharra gupidarik barik bonbardatu zuten. Ondorengo egunetan ere jarraitu zuten erasoek, apirilaren 2an eta 4an. 336 hildako zenbatu zituzten.



Jon Irazabal, hilerrian, Jone Guenetxea eta Markel Onaindia kazetariekin. LEHIOR ELORRIAGA



Durangoko Udal Artxiboko ehorzketen liburuak.



Ostalaritza gida



Durango



OIERDI

Herriko gudarien 8, DURANGO

Tel.: 946 129 824

Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.



Iurreta



GAUARGI

Dantzari Etxetaldea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...



Durango



AI AMA

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA


Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Durango




MIKELDI TABERNA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Durangoko Udalaren deialdia industrializazio sasoian herrira etorri zirenen ekarpena ikertzeko

Udalak XX. mendeko migrazioek emandakoa jaso gura du bideo batean. Berriro zabaldu dute bekarako inskripzio epea



Durangoko Aramotz auzunea.

DURANGO • EKAITZ HERRERA
Apirilean egin zuten bekarako lehenengo deialdia, baina izen-ematerik egon ez dela-eta, Durangoko Udalak bigarren deialdi bat egitea erabaki du. Udalak

ikus-entzunezko batean jaso gura ditu 1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako industrializazio garaian Espainiako Autonomia Erkidegoetatik Durangora bizitzera etorritako herritarren ekarpena.

Industrializazio garaian Durangora bizitzera etorritako herritarren ekarpena jaso gura dute

Biztanleria hazkundea
Ekarpen kulturalak, ekonomikoak eta sozialak aztertu gura dituzte, horregaz "elkarbizitzara-ko pauso berri bat" emateko. Durangoko Udaleko datuen arabera,

udalerriak 9.000 biztanle zituen 1950ean. 1979an, ostera, hiru bider gehiago: 27.000. Prozesu migratorio hura bizi izan zutenen lekukotasunak hartuko dituzte, gero istorio globala osatzeko.

Interesdunentzako datuak
Bekaren onuradunak 12.000 euroko aurrekontua eta 9 hilabeteko epea izango ditu bideoa entregatzeko. Bestalde, eskatzaileak ikus-entzunezko edo kazetaritza graduko ikasketak izan beharko dituela azaldu du Durangoko Udalak prentsa oharrean.

Bekaren onuradunak 12.000 euroko aurrekontua eta 9 hilabeteko epea izango ditu

Beka honetan izena emateko epea azaroaren 15ean amaituko da. Interesdunek Durango udaletxeko beheko solairuan dagoen Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Administrazio publikoetako erregistroan aurkeztu beharko dute dokumentazioa. Horretarako, hitzordua eskatu beharko da honako telefono zenbaki honetan: 639580023.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA
Zornotzan bizi diren kultur komunitate anitzek ikuskizun bat sortu dute, denek elkarrekin. Emanaldia Zornotza Aretoan izango da, zapatuan 20:00etan. Sarrerak eskuragarri daude. Euskaldunak, errusiar lipobenoak, afrikarrak, hegoamerikarrak zein asiarrak. Zornotzan elkarbizitzen diren kultura anitzetako herritarrek ikuskizun bat sortu dute elkarrekin. Zapatuan estreinatuko dute

Zornotzan bizi diren kultur komunitate anitzek ikuskizun bat sortu dute, denek elkarrekin

Ikuskizuna koordinatzen arituko direnak Aitor Ormaetxea eta Josu Camara izango dira

Zornotza Aretoan eta sarrerak salgai ipini dituzte honezkero. Ikuskizuna koordinatzen arituko direnak Aitor Ormaetxea eta Josu Camara izango dira.

Jatorri anitzetako zornotzarrak 'Amorebieta-Etxano, kulturen bidegurutzea' ikuskizunean

Ikuskizuna zapatuan estreinatuko dute, 20:00etan, Zornotza Aretoan eta sarrerak salgai ipini dituzte honezkero



Zornotza Arretoa.



Argazki irabazlea.

Endika Larrinagak irabazi du Etxanoko II. argazki lehiaketa

'Epaltza' argazkia izan da garailea. Pedro San Romanek lortu du bigarren lekua eta Jon Ander Garciak hirugarrena

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA
Etxanoko Auzo Elkartek argazki lehiaketako bigarren edizioa irabazleak zeintzuk izan diren jakinarazi du. Endika Larrinagak irabazi du sariketa, *Epaltza* argazkiagaz. Bigarren lekuan Pedro San Román geratu da, Etxanoko ikuspegi orokorra erakusten duen

argazki bategaz; Jon Ander García izan da hirugarrena, egunsentiko landareak agertzen dituen *Familia itzartzen* irudiagaz. Lehiaketara aurkezturiko argazki guztien artean, epaimahaiak 12 argazki aukeratuko ditu eta 2022ko egutegia osatuko dute horiekien.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Unitate didaktikoa sortu dute, 'Iurreta ezagutu' proiektua bultzatzeko

32 orrialdeko liburuxka LH3ko ikasleen artean banatuko dute. Osagarri lez, fitxak sortu dituzte euskarri digitalean



'Iurreta Ezagutu' unitate didaktikoaren aurkezpeneko irudia.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Bibliotekak eta Maiztegi eskolak 2009. urtean sorturiko 'Iurreta Ezagutu' proiektuari bultzada emateko, unitate didaktikoa sortu dute. 32 orrialdeko liburuxka kaleratu dute eta osagarri lez fitxak sortu dituzte euskarri digitalean. Iaz hasi ziren lanean, Iurretaren desanexioaren 30. urteurrenagaz bat eginda.

"Ditugun baliabideak txertatuz gure herria ezagutzea da helburua, proiektuaren hasierako filosofiari balio erantsia emateko", esan dute proiektuaren bultzatzaileek. LH3ko ikasleen artean banatuko dute liburuxka, behin eskolan landu-

ta materiala etxera eraman eta familiagaz partekatzeko. Herri Bibliotekak eta Maiztegi eskolak elkarlanean sortu zuten 'Iurreta ezagutu' proiektua, 2009-2010 ikasturtean, "herriko ume askok euren historia ezagutzeko". Elkarlan horren barruan sortu ziren Maiztegi eskolako LH3ko ikasleentzat antolatzen diren bisita gidatuak, eta urte batzuk gerorago CD-ROMa kaleratu zuten.

Oraingoan, pauso bat harago joan eta ekimenari osotasun bat eman gura izan diote. Unitate didaktikoaren irudi eta testuak Eñaut Aiertzaguenarenak dira. Diseinuaz eta maketazioaz Sorland komunikazio agentzia arduratu da.

Datorren urtean zergak eta tasak izoztuko dituzte Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

2022an, ez dituzte zergak eta tasak igoko Iurretan. Eta plaka fotovoltaiakoak instalatzen dituzten higieziei %50eko hobaria emango zaie ondasun higiezinaren gaineko zergan (OHZ), instalazioa amaitu ondorengo hiru urteetan. Bestalde, instalazio eta obren gaineko zergan %75eko hobaria izango da.

EH Bilduk EAJren proposamenaren aurka egin du, energia berriztargarriekin lotuta estrategia bat diseinatu behar dela arrazoituz. "Hobari txiki hauek ez dute zentzurik beste estrategia batzuekin ez badatoz. Udalak ausartago jokatu behar luke eta eredu izan", esan dute. Iñaki Totorikaguena alkateak dio aldaketak pausoz pauso eman behar direla.

Martxan daude Muntzaratz eta Zelaieta arteko hiribidea eraberritzeko lanak

Abadiñoako Udalak zeharbide "atseginagoa" lortu gura du. Lanekin kilometro bi pasatzoko tartea berrituko dute



Kilometro bi pasatzoko tartea eraberrituko dute lanekin.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoako Udalak jakinarazi du dagoeneko martxan daudela Zelaieta eta Muntzaratz auzoen arteko hiribidea berritzeko obrak. Lan hauekin, hirigune "atseginagoa" lortu gura dute, "zarata eta kutsadura gutxiago" izango dituen, oinezkoen joan-etorrietarako "zerbitzu ona" eskainiko duena. Besteak beste, espaloia egingo dute espaloia falta den tartetan, oinezkoen pasabide berriak ipiniko dituzte eta oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte.

Udalak jakinarazi duenez, kilometro bi pasatzoko tartea eraberrituko dute. Fase bi identifikatu dituzte horretarako. Batetik, zati nagusia dago, Zelaietatik Garbi fundizioaren pareraino doana. Tarte hori eraberritu egingo dute, oinezkoen zirkulazioari eta espaloiei "lehentasuna" emateko. Bestetik, puntu horretatik Atxondorainoko zatia dago. Zati horretan, aglomeratua eta seinaleak hobetuko dituzte. Lanek 1.774.598 euroko inbertsioa izango dute.

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI TXAPELKETA

20-21 KANPORAKETA

URRIAK 30

ELORRIO

ARRIOLA ARETOA. 17:00

Aitor Arrutia Azkueta, Igor Galarza Intxausti, Imanol Arrutia Azkueta, Imanol Uria Albizuri, Iñaki Iturriotz Zuluaga eta Peru de Pedro Larrea.
Gai-jartzailea: Olatz Larrinaga Caballero.

Antolatzailea: Bertsozale Elkartea
Babesleak: Bizkaia Foru Aldundia BBK Elorrio Udalak
Laguntzailea: Anboto

Mañariko Udalak eta Lurgaia Fundazioak 20 urterako hitzarmena sinatu dute baso autoktono bat hazteko

Boluntariotza lana sustatzea eta 4,1 hektareako lursaila herritarren languntzagaz birlandatzea da helburua

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Udalak 4,1 hektareako —41.314 metro karratu— lursail bat erosi zuen uztailen. Urte askoan pinua eta antzerako zuhaitzak egon diren tokian, baso autoktono bat sortzea da helburua, eta hori lortzeko, zeregin horretan aditua den Lurgaia Fundazioa jo dute. Ildo horretatik, alde biek 20 urterako lankidetzaz hitzarmena sinatu dute asteen.

Orain zuhaitzik bako lursaila da, baina bota aurretik pinuak, jatorri amerikarra duen Lawson espezieko zipresak eta astigar japoniarrak osatzen zuten gunehartako zuhaitzia, Lurgaia Fundazioak Jon Hidakok azaldu duenez. Hurrengo hamarkada bietan, baso autoktonoa sortzeko lan egingo dute. "Batuetan, profesionalak arituko dira horretan, baina gure asmoa, batez ere, herritarrekin boluntariotza lana egitea da", azaldu du.

Lursaila Mañaritik Urkiolara bidean dago. Errepidetik ez da ikusten, baina Saibigainera doan

pistatik bai, alboan dagoelako. Jendearen bistara egotea positiboa dela uste du Hidakok, han egiten den lanaren fruituak ikusteko aukera izango duelako edozeinek. Lursail horretan antzina zer zuhaitz egongo ziren galdetuta, hainbat adibide jarri du: urkia, haritza, pagoa, serbala eta gorostia, besteak beste. "Hemendik 25 bat urtera, berez hazten denagaz eta guk landatzen dugunagaz baso autoktono gazte

bat egotea da helburua", azaldu du Lurgaiako kideak. Etorkizunean lursail hori hesitzeko asmoa dute, batez ere lehenengo urteei begira, zuhaitz landareak animaliangandik babesteko.

bat egotea da helburua", azaldu du Lurgaiako kideak.

Etorkizunean lursail hori hesitzeko asmoa dute, batez ere lehenengo urteei begira, zuhaitz landareak animaliangandik babesteko.



Lursaila ez da Urkiolara doan errepidetik ikusten, baina bai Saibigainera doan pistatik, Jon Hidakok azaldu duenez.

OTXANDIO • J.D.

Euskaltzaleen Topaguneak, kulturaren bitartez, euskara sustatzea helburu duen Udagoieneko Ostera emanaldi zikloa antolatzen du urtero. Normalean, jendaurreko emanaldiak dira, baina COVIDaren ondorioz formatua aldatu dute aurtten. Kontzertuak aurretik grabatu dituzte, publikorik barik, eta Interneten eskainiko dituzte egun jakin batzuetan.

Aurtten, emanaldi guztiak lotzen dituen haria memoria historikoa da. Ildo horretatik, Otxandion grabatu dute kontzertu bat, 1936an bonbardaketa jasan zuen Andikona plazan. Mikel Urdangarin musikari zornotzarra izan zen ekain hasieran emandako kontzertu hartako protagonista. Sorpresa bat

Mikel Urdangarinek Andikona plazan emandako kontzertua, sarean ikusgai

Emanaldia Euskaltzaleen Topaguneak antolaturiko 'Udagoieneko Ostera' zikloaren barruan grabatu zuten, ekainean, eta azaroaren 12tik 14ra ikusi ahalko da Interneten

baino gehiagoko emanaldia izan zen, gainera. Esaterako, *Andikona* 1936 abestian Josu Zabala eta Rafa Rueda musikariak batu zitzaizkion Urdangarini, eta hiruren artean abestu zuten. Kontzertua azaroaren 12tik 14ra (egun horietan bakarrik) ikusi ahalko da *udagoienekoostera.eus* webgunean.

Zikloa beste kontzertu bik osatzen dute: Olatz Salvadorrek Ondarroan eta Xamanak taldeak Barakaldon grabatutakoak.



Mikel Urdangarin Andikona plazan ekaineko emanaldian.

Sun magoak magia ikuskizuna eskainiko du gaur arratsaldean Izurtzako plazan

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak herritarrentzat ekimenak antolatzen jarraitzen du udazken sasoian. Gaur arratsaldean, Sun magoaren *Bat, 2, hiru... magia!* ikuskizuna ikusteko aukera egongo da plazan. 18:30ean hasiko da emanaldia, eta hurrei zein helduei zuzenduta dago. Ez dago sarrera aldeztu aurretik hartu beharrik.

Hasieran irailean udalak jaien ordezturiko ekimen sortaren barruan etorri behar zen Sun magoa, baina azkenean ezin izan zen etorri eta bertan behera utzi behar izan zuten ekimena. Orain, urriko ekintza moduan eskainiko du Izurtzako Udalak gaur arratsaldean.

Berbalagunek aurtengo ikasturteari ekin dio Mallabian, askotariko aukera eta ekintzekin

MALLABIA • J.D.

COVIDaren ondorioz azken edizio bietan antolatu ez dituzten ekintzak berreskuratu gura dituzte, aurtten, Mallabiko Berbalagun egitasmoaren barruan: ikastaroak eta tailerrak, euskarazko pintxo-poteak, Berbafariak, Berbalagun topaketak... Oraindino, beharrezko prebentzio neurri guztiak hartuko dituzte egitasmoko ekitaldi guztietan, ohar batean jakinarazi dutenez.

Parte hartzea doan da eta hainbat modutara eman daiteke izena. Mallabiko kultur etxera joanda, *emanizena.praktikatu.eus* webgunearen bitartez edo 663 070 492 telefonora whatsapp idatzita. Izena eman dutenen artean 10 sari kutxa zozkatuko dituzte hilero-hilero.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. **Salbuespenik gabe.**



bertako
Igogailuak | ascensores
www.bertako.eus




ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzea


HARRAPATZE
EGOKERAK


IGOGAILUKO
ZARATAK


365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917

Baserritar gazteen lana sustatzeko kanpaina martxan da Durangaldean

DURANGALDEA • J.D.

Baserritar gazteen lana sustatzeko, kanpaina bati ekin diote, eta horren barruan argazki saioa egin zuten aurreko asteburuan, Durangoko merkatu plazan. Alde batetik, bertako produktuak ekoizten eta saltzen dituzten ekoizle gazteak badaudela erakutsi gura izan dute ekimenagaz; hau da, ikusgaitasuna eman gura diete. Bestetik, gaur egungo belaunaldi berrien zailtasunak zeintzuk diren plazaratu gura izan dute.



Durangoko merkatu plazan egindako argazki saioko irudia. **SORLAND**

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonaindia
EAJ



Nola igo den IBIA!

Horixe da Durangon egun hauetan gehien entzuten den komentarioa, galdera batekin batera: zenbat iraungo du IBI igoera horrek? Ba, bi urte gutxienez.

Joan den urtean EH Bilduk eta Podemosek zergak igo zituzten Durangon, beste inon gertatu ez bezala. Eta aurten zergak igo ez dituzten moztoropean, igoera hori egonkortu egin dute. Ea nork uste duen datorren urtean egungo gobernu-taldeak IBIA jaitea proposatuko duela, aurreko kopurura itzuliz. Guk EZ, eta horregatik hor jarraituko du, egoera hau salatzen.

Gobernu-talde honek argudiatu zuen igoeraren beharra Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpen gutxiagoarekin, eta hori aitzakia gisa balio izan du herritarrak IBIAren igoerarekin zigortzeko, bigarren urtean geratu eta sendotuz. Durangon etxebizitza %14 eta %16 igo da, eta merkataritza %15 eta %20, gainerako eskualdeko udaletan, egoera berean, zergak igo ez direnean. Baina Durangon EH Bilduk eta Podemosek igo egin zituzten eta horrela geratu dira.

Herritarrek segurtasuna behar dute, ez populismoa. Alde batetik, zerga justuak ordaintzen dituztela, eta, bestetik, horien zenbatekoa jakitea. Momentu honetan ez dakite datorren urtean zein zenbatekoa izango den zerga, momentu honetan bote absolutuan dauden EH Bilduren eta Podemosen arbitrariorotasunaren arabera izango baita, izan ere, uste dute "gehien duenak gehiago ordaintzea" esatearekin dena justifikatuta dutela, eta, hori aprobetxatuz, durangar guztioi igo dute IBIA.

Durangaldea asteen

'Errebonbillo' pintura lehiaketaren XXXI. edizioa egingo dute urriaren 23an Elorrion

Elorrio | Iturizoro Elkartek antolatuta, eta Elorrioko Udalen laguntzagaz, aire zabaleko pintura lehiaketa antolatu dute Elorrion. XXXI. edizioa urriaren 23an izango da. Bertan parte hartu gura dutenek urriaren 23an bertan eman beharko dute izena, Iturri Kultur Etxean, 9:00etatik 10:00etara bitartean.

Zabalik dago ikasleentzako garraio gastuetarako laguntza eskatzeko epea

Elorrio | Elorrioko Udalak 18tik 30 urtera bitarteko ikasleei zuzenduriko diru laguntza eskatzeko epea zabaltu du, egiten dituzten garraio gastuak ordaintzen laguntzeko. Hori horrela, diru laguntza eskatu gura dutenek azaroaren 12ra arte dute epea eskaria aurkezteko. Udaleko erregistro orokorrean egin behar dute hori.

Bigarren eskuko merkatua eta artisau merkatua urriaren 23an Traña-Matienan

Abadiño | Orekarte artisau lanen eta bigarren eskuko objektuen azoka egingo dute urriaren 23an Traña-Matienan. Bertan, inguruko artisautza lanak eta bigarren eskuko objektuak eskaintzen dituzten postuak egongo dira. Merkatua kiosko plazan egingo dute, 10:00etatik 15:00etara. Antolatzaileek bertaratzeko gonbidapena egin diete herritarrei.



Abadiñoko Gaztetxearen 23. urteurrena ospatuko dute asteburuan, hainbat ekintzagaz

Abadiño | Asteburu honetan, Abadiñoko Gaztetxearen 23. urteurrena ospatuko dute. Zelai errea txapelketagaz emango diote hasiera urteurrenari, barikuan. Gero, 20:00etan, luntxa egongo da, eta 21:00etan J. Martinaren kontzertua. Zapatuan, 11:00etan, bizikleta martxa egongo da, eta 14:30ean bazkaria. Egunari amaiera emateko, poteoa eta Animaliek taldearen kontzertua egongo dira.

Gaztetxeak azaldu dutenez, zelai errea txapelketarako izen-ematea barikuan egin beharko da, 17:00etan hasita.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibañeta Balde
(Susa)



AITAREN ETXEA
Karmele Jaio
(Elkar)



NOLA GORDE ERRAUTSA KOLKOAN
Miren Agur Meabe
(Susa)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu 686 214 964, Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Ezkontzak 2021



MANCISIDOR
1866



CECILIA ERDOIZA

EDERTASUN AHOALKULARIA •**Ezkontzetara begira, zein zerbitzu eskaintzen duzue?**

Ezkongai asko denboragaz hasten dira dena prestatzen. Kasu horietan, galdetegi bat egiten diet. Xehetasun guztiak ezagutzea garrantzitsua izaten da. Jantzia zelakoa den, lepoa bistan izango duten, zein kolore eta estilotakoa izango den... Ikusten ditudan beharizanen arabera tratamenduren bat egitea aurreikusten dugu. Beraz, makillajeaz haratago, edertasun aholkularitza eskaintzen diet. Egun horretan distiratsu egotea da helburua.

Makillaje probak egiten dituzue?

Jantzia probatzerakoan orrazkera eta makillajea ere probatzea da aproposena.

Ezkongaiei dagokienez, mutilak geroago eta gehiago joaten dira?

Mutilek tratamenduak egiten dituzte azala osasuntsu izan dezaten. Geroago eta gehiago zaintzen dira. Ikusten nabilena da geroago eta neska gehiagok tratamenduak oparitzen dizkietela mutilei. Norberaren burua zaintzea ez da kirola egitea bakarrik. Azala zaintzea ere oso garrantzitsua da osasunerako.

Bisagismoan ere jarduten duzu.



Makillajea bakoitzak duen aurpegi motaren arabera aukeratzen da. Ikerketa egiten da, makillajea neurritara aukeratu behar delako, aurpegiaren ezaugarrien arabera. Makillajeagaz zuzenketak egiten dira, aurpegiaren indarguneak nabarmentzeko.

Automakillaje ikastaroak ematen dituzu.

Klase pertsonalizatuak egiten ditut. Aukera hau oso ona da opari legez emateko. Ez dago produktuak saltzera bideratuta. Jendeari esaten diot euren produktuak ekartzeko, egunerokotasunean makillajeagaz norberaren onena ateratzeko.

iduribelleza@gmail.com

Edertasuna eta osasuna



Ezkontzako erabakirik garrantzitsuenetarikoa bat orrazkera izaten da. Batuta zein solte, ilean ere ipini daitezke osagarriak. Mota guztietako loreak jartzea moda-modan dago

IDURI

Cecilia Erdoiza
Asesora de belleza
610 400 550
iduribelleza@gmail.com
Montevideo 28, 48200 Durango

NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ezkontzako gonbidatuen aukera: jantzi minimalistak



Ezkontzako gonbidatuek beti asmatzen dute kolore neutroekin. Beltzaren eta zuriaren uztarketa klasiko bat da. Baina kolore ikutu bat ipini gura dutenentzat hainbat aukera dago. Begiratu eta proba egin



ADOLFO DOMINGUEZ

Artekale 22, Durango
48200 Bizkaia
Tel.: 98 839 87 43

Alicia Ruedaren jantzi ikonikoak egun berezi baterako



Diseinatzaile markinarrak bilduma berezia egin du argazki saioetarako edo ezkontzetarako bereziki sorturiko jantziekin. Bere sorlan ikonikoenak ezkongai guztien esku ipini ditu. Kasu askotan, loreak dira osagai nagusiak





**Bordatutako lo-
reek tularekin edo
beste oihal batzue-
kin bat egiten dute**




**Pieza biko
soinekoak zein
soineko laburrak
ere ikusi daitezke**





IZORNE LUENGO
IRIONDO



AKEBASO JATETXEA •

COVID-19aren eraginez, denbora batez ez da ezkontzarik ospatu. Berririo mugimendua igartzen duzue jatetxean?

2021erako 60 ezkontza genituen. COVID-19a dela-eta, 10 egin dira. Baina bizitza aurrera doanez, ezkongai asko haurdun geratu dira eta ezkontza atzeratzea erabaki dute. Bikoteren batek utzi ere egin du harremana. Orain, berririo ere ezkontzak ospatzen hasi gara. Hainbat ezkontza pilatu zaizkigu, aurretik egin ez direnak eta baita berriak ere. Askok aurtengo data datorren urtera atzeratu dute. 2022a beteta daukagu eta eskaerak jasotzen hasi gara 2023rako.

Beraz, gatz izango da epe laburrean datak aurkitzea.

Denboraldiko datak beteta daude 2022rako; beraz, jendeak egiten duena da martxorako edo abendurako hartu. Beste bikote batzuek datorren urtean bariku batean ezkontzea erabaki dute, zapatuak beteta daudelako. Lehen, bikoteek data ipini eta horren arabera



jatetxe batean ezin bazen beste batera joaten ziren. Orain, jatetxea libre noiz dugun galdetzen dute eta horren arabera antolatzen dute bestea. Honek poztu egiten gaitu, konturatzen gabiltzalako normaltasunera bueltatzen ari garela.

Orain ezkondu direnak pandemia sasoian data atzeratzen ibili diren bikoteak izango ziren. Emozio handiko ezkontzak izango ziren.

Oso ezkontza hunkigarriak izan dira. Zeremoniako berbak entzun eta konturatzen zara zer pasatu behar izan duten egun horretara heltzeko. Merezi dute horrelako ekitaldi polit bat izatea.



akebaso

akebasorestaurante.com

Tel.: 946 582 060

akebaso@akebasorestaurante.com

SAN JUAN AUZOA 16
ATXONDO, BIZKAIA

Eguzkiboda, harribitxia delako eta izango delako protagonista

Horregatik. Eguzkiloire Bitxigintzan Eguzkiboda sortu dugu. eztei bitxigintzan espezializatutako aholkularitza zerbitzua. non bikoteei bizitza osorako iraungo duten bitxiak aukeratzen laguntzen diegun. Berezko nortasuna duen eta gure markaren barruan integratuta dagoen zerbitzua



Bikote bakoitza mundua zarete eta ospakizun bakoitza bakarra da, eta horregatik, zuen ezkontzarako bitxiak aukeratu behar direnean, ez da mugarik egon behar. Ezkontza-eskera-ko eraztun egokia aukeratzetik hasi eta gainerako egunetan batuko zaituzteten eraztunetaraino, zuei entzutea da gure lana, zuen lehentasunak ulertzea, zuen ikuspegiarekin konektatzea eta hasieratik bukaerara hautaketa egokia egiten laguntzea.

Zuen itxaropenetatik abiatuta, hasierako azterketa bat egiten dugu eta aholkularitza osoa ematen dizuegu. Gure bitxi-dendetan eta web orrian, azken joerak ezagutu, bitxi sorta zabala ikusi eta proposamen desberdinak baloratu ahal izango dituzue, une oro aholku profesional eta aditua emanez.

Bitxigintzan adituak garenez, bertatik bertara ezagutzen ditugu oharkabeaz pasatzen diren xehetasun guztiak, esperientzia askotatik ikasi dugu, marken indarguneak ezagutzen ditugu, materialen abantailak, modaren gaurkotasuna... eta hori guztia zuen eskura dago Eguzkiboda aholkularitza-zerbitzuaren bitartez.

Nirekin ezkondu nahi duzu?

Ezkontza bat prestatzen hasi aurretik, ezkontza-eskaera bat egin behar da, emaztegaiarentzako ezkontza-eraztun bate-



kin. Eraztunak bakarra eta berezia izan behar du, ondoren etorriko den guztiaren hasiera markatuko baitu. Eguzkiboda-diamantedun urrezko eraztunen aukeraketa berezia dugu.

Bai, nahi dut.

Hainbat kilataje eta koloretako titanio, karbono eta urre platinoko eraztun sorta zabala dugu. Eztei bitxigintzaren munduko marka nazional eta internazional ezagunenekin lan egiten dugu: Breuning, Saint Maurice, Titan Factory, LK Navarro, Duoo eta Eguzkiloirekoak. Unean uneko azken joerak ere gehitu ditugu, hala nola karbono beltzeko, karbono griseko eta titaniozko eraztunak.



Ukitu berezia

Osagarriak gero eta protagonistagoak dira ezkontzetan, berdin dio ezkongai edo gonbidatu soila zaren. Belarritakoek, eskumuturrekoek edo lepokoek amaiera bikaina ematen diete urteko ekitaldian perfektuak diren look horiei.

Askotariko osagarriak ditugu: belarritakoak, eskumuturrekoak, eraztunak, paparrekoak, Tissot erlojuak, zilarrezko bitxiak, urrezkoak, urrezkoak diamanteekin; estilo eta gustu guztietarako.

Eta bereziki goi-mailako bitxigintzako bitxi eksklusiboak, gure tailerretik ateratzen direnak, gure maisu bitxigile eta gemologo Ander Zuluagaren artisau-eskuetatik. Zuen gustura diseinatutako eta pertsonalizatutako pieza bakarrak; zuek amestutako bitxiak.

Elkar ezagutzen dugu?

Eskatu lehen hitzordu bat, erosteko konpromisorik gabe, elkar ezagutzeko, nola lan egiten dugun jakinarazteko eta gure bitxien katalogo zabala ikusteko.

94 439 94 07 (Bizkaia) 943 43 15 58 (Gipuzkoa) edo 945 14 22 23 (Araba) telefonoetara deituz, eguzkiboda@eguzkilo-rejoya.com helbidera idatziz edo formulario hau beteaz egin daiteke.

Gure dendetan jasoko zaituztegu, solasaldi lasai baterako gune pribatu batean; sormen gune bat da, eta bertan ideiak partekatuko ditugu, proposamenak ikusi eta gehien gustatzen zaizkizuen ereduak probatuko dituzue, eta prozesu osoan bitxiak aukeratzeaz gozatu ahal izango duzue.

Gainera, bisitatzeagatik bakarrik, "Ezkongaien Egunerokoa" oparituko dizuegu, zuen ezkontzako prestaketa guztiak idatzi eta Eguzkibodaren oroigarri polit bat izan dezazuen.

Eguzkiboda, online ezkontzarako bitxiak

Gure ibilbidean, bikote askori eman diegu aholkularitza, eta badakigu berehalakotasuna oso faktore garrantzitsua dela zuen ezkontzarako bitxiak aukeratzeko orduan. Ideia finkoak badituzue eta zein bitxi jantzi nahi dituzuen argi badituzue, eguzkiboda.com-en gure bitxien katalogo osoa aurkituko duzue online erosketa egiteko. Eraztun pertsonalizagarriak, solitarioak, belarritakoak, bikiak... behar duzuen guztia gure web orri berrian aurkituko duzue.

Gainera, gure webgune berriaren inaugurazio gisa, %10eko deskontu-kupoia oparituko dizuegu, zuen lehen erosketan trukatu ahal izango duzuen.



EZKONTZAKO ALIANTZAK
EGUZKILORE®

eguzkiboda.com



ITZALAK

Beheko itzal hauetatik guztietatik
zein dagokio alboko irudi koloretsuari?








BIKOTEAK SORTU

Lotu goiko eta beheko irudiak bikoteka.



DOMINOA

Marraztu dagokion
irudia lauki zurietan.





Txistu kontzertua

MUSIKA **DURANGO :: Urriaren 23an**

25 txistularik eskainitako kontzertua Landako Gunean

Txistuaren lau ahotsetan (1.a, 2.a, silbotea eta txistu baxua) banatuta, 25 txistularik eskainitako kontzertua entzuteko aukera egongo da zapatuan, 20:00etan, Landako Gunean. Txistulariek metal, saxo, perkusio, piano eta baxu-elektrikoak osatutako boskotea izango dute lagun, eta Nagore Alanguak zuzenduriko Nurat Gaste abesba-

tzak (Gasteiz) ere parte hartuko du. Silboberri txistu elkarteak antolatutako emanaldia izango da eta Gasteizko Mulixka taldeko dantzariak eta Durangoko L'Atelier dantza eskolakoek ere parte hartuko dute.

Kontzertuan hamar pieza joko dituzte eta zortzi zapatuan bertan estreinatuko dituzte. Melodia garaikide ezagunak entzungo dira.

Urriaren 22an

ABADIÑO urteurrena
Gaztetxearen urteurrena: Zelai erre txapelketa, 17:30ean.
Luntxa, 20:00etan.
Kontzertua: Dj Martina, 21:00etan.

ELORRIO dantza
'Bat' (Dantzaz konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

DURANGO film laburrak
'Los excursionistas' eta 'El Paraguas' film laburrak, 20:00etan, San Agustin kultur gunean.

MALLABIA herri kirola
Txokolatada, 16:30ean
Herri kirolak, 17:30ean, parkean. Txondor elkarteak.
La Furia: Rap jaia, 20:00etan, parkean. Nahikari elkarteak.

ZALDIBAR berbaldia
Juan de Aranoa margolariaren lanari buruzko berbaldia, 17:00etan, liburutegi zaharrean.

ZORNOTZA dantza
'Gorpuztu' (Eva Guerteroren dantza konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

ZORNOTZA musika
Lua Madi, 20:30ean, Zelaieta zentroko kontzertu gelan.

Urriaren 23an

ABADIÑO urteurrena
Gaztetxearen urteurrena: Bizikleta martxa, 11:00etan.
Bazkaria, 14:30ean. Ondoren, tribiala.
Poteoa, 18:00etan.
Kontzertua: Animaliek, 21:00etan.

BERRIZ musika
Club del Río, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ musika
Myriam Cepeda organista + Luis Alberto Requejo klarinetista, 18:00etan, San Joan Bautista elizan.

DURANGO antzerkia
'Charadas' (Krego-Martin Danza konpainia), 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

DURANGO aurkezpena
'Acordes entre cenizas' (Anne Aguirre) liburuaren aurkezpena, 12:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO lehiaketa
XXXI. Errebonbilo aire zabaleko pintura lehiaketa. Izena emateko egunean bertan, 09:00etatik 10:00etara, Iturri kultur etxean. Sari banaketa, 18:00etan. Iturritzorok elkarteak antolatuta, udalagaz elkarlanean. Lan guztiekin erakusketa egingo dute urriaren 25etik azaroaren 4ra bitartean.

MALLABIA kirola
Emakumezkoen Gomazko Elite txapelketako finalaurrekoa, 12:00etan, frontoian.
Goitibehera jaitsiera umeentzat, 17:00etatik 20:00etara, Elizosten. 6 urtetik gorako umeentzat.
Gazta azoka, 17:00etatik 20:30era, parkean, Debabarrenako gaztagileen eskutik.
Queen taldeari gorazarre, 22:30ean, parkean.

ZORNOTZA musika
Amorebieta-Etxano Kulturen Bidegurutzea kultur ikuskizuna, 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Urriaren 24an

ELORRIO antzerkia
'Só' (Xampatito Pato konpainia), 16:00etan, Arriola antzokian.

DURANGO dantza
'Nire, zure, gure Verdini: 25 urte' (Verdini dantza konpainia), 18:00etan, Landako Gunean.

GARAI musika
'Isiltzen joan zirenak' (Ameli eta Xirrikitenen jostunek), kontzertu dramatizatua, 18:00etan, Elizabarrin.

MALLABIA kirola
Duatloi txikia, 10:30ean. Herri barruko zirkuitua. Guraso Elkarteak antolatuta. Ondoren, **multikirola,** parkean. Mallabia futbol taldea.
'genEroa' (Kimua dantza kolektiboa), 12:30ean, herriko frontoian.
Zinema, 16:30ean, parkean.

Urriaren 29an

DURANGO antzerkia
'Andante' (Markeliñe konpainia), 22:00etan, Landako Gunean.

DURANGO kirola
XI. Peter Memoriala, 19:30ean, Jai Alai Ezkurdi pilotalekuan.

ELORRIO dantza
'Emakumeak' (Dantza Node dantza konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
'Maitasunaren itxiera' (Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Urriaren zehar

DURANGO erakusketa
'DG02021' (Txelu Angoitia) + 'Hiru dokumentu akelarre batentzat' (Ander Berrojalbiz) + 'Gogoratzen' (Amaia Lejarreta), Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Abadiño ERROTA

• **Benedetta**
zapatua 23: 19:00
• **Bella y el circo mágico**
domeka 24: 17:00

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Bebé jefazo: negocios de familia**
barikua 22: 17:00
domeka 24: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **La crónica francesa**
barikua 22: 19:30/22:00
zapatua 23: 17:30/19:00/22:00
domeka 24: 17:30/19:00
astelehena 25: 18:00/20:15
martitzena 26: 18:00/20:15
eguztzena 27: 18:00/20:15

• **Entre rosas**
barikua 22: 19:30/22:00
zapatua 23: 19:30/22:00
domeka 24: 19:30
astelehena 25: 18:00/20:15
martitzena 26: 18:00/20:15
eguztzena 27: 18:00/20:15

• **Halloween kills**
barikua 22: 19:30/22:00
zapatua 23: 17:30/19:30/22:00
domeka 24: 17:30/19:30
astelehena 25: 18:30/20:15
martitzena 26: 18:30/20:15
eguztzena 27: 18:30/20:15
• **Salvar el árbol**
zapatua 23: 17:00
domeka 24: 12:00/17:00
• **Pokemon: Pikachu Detektíbea**
zapatua 24: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Madres paralelas**
zapatua 23: 20:00
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00


:: Zornotza ARETOA

• **Madres paralelas**
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00
• **Bella y el circo mágico**
domeka 24: 17:00



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



Iñigo Bolinaga Irasuegi

Idazlea

ELORRIO | 1974

garai forala. Hortik aurrera, beste sasoi bat hasi zen eta sasoi hori giltzarria izan zen bien artean.

Bestalde, garai hark baditu beste ezaugarri batzuk ere. Kontuan hartu behar da sasoi hartako jendea oso katolikoa zela, eta hori oso nabaria zen gizartean. Ezkontzerakoan, adibidez, familiari begira, familia kontuan hartuta ezkondu behar zen.

Egiltzarrak dira protagonistak.

Hiru anaia eta arreba bat dira egiltzarrak. Pertsonaia bakoitzak ikuspuntu bat erakusten du. Bat karlisten taldera batzen da eta batailei buruz berba egiten du, bertako bizipenak erakusten ditu. Beste bat karlistekin ados dago, baserri giroko askoren moduan, baina beste ikuspuntu bat erakusten du; ez da hain ausarta eta ihes egiten ahalegintzen da. Beste batek parrokoagaz bat egiten du; karlistekin hartu-eman du eta estatu karlistaren estruktura iraikitzen laguntzen du. Bestalde, euren arreba Bilbora doa, zerbitzari lanak egitera; hor liberalen ikuspuntua ikusi daiteke, dirudunek zelako bizimodua zuten. Bilboko setioa zelakoa izan zen ere deskribatzen da, eta interesgarria dela uste dut.

Gusturago aritzen zara historia nobelatua idazten?

Bietan nago eroso. Orokorrean, historia kontuekin nago eroso. Literatura egitean, egia da libreago sentitzen naizela, baina bestelakoak idazterakoan ere gustura aritzen naiz. *La alternativa Garat* eta *El testamento* saiakera lez izendatzen dira, baina nobelatuta ere badaude; beraz, esan daiteke bien artean ibili naizela beti.

Karlistak baztertuta egon dira?

Karlismoak ere bere historia izan du; ez ziren berdinak XIX. mendekoa eta XX.ekoa. Jendeak egin zuena zergaitik egin zuen kontatzea da nire nahia. Mota askotako karlistak egon dira, baina niri interesatzen zaizkidanak, liburu honetarako behintzat, baserrietakoak dira.

“Karlisten arrazoiak euren ahotsetik agertzen dira nobelan, eta hori garrantzitsua dela uste dut”

'Somos comunión' Iñigo Bolinaga elorriarraren bigarren nobela historikoa da; Txertoa argitaletxeagaz kaleratu du hau ere

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Iñigo Bolinaga historialari elorriarrak 'Somos comunión' liburu kale-ratu du oraintsu. 'Sinfonía guerrera' lehenengo eleberriagaz egin zuen moduan, Txertoa argitaletxeagaz kaleratu du hau ere. Liburuan, 1872ko Bizkaiko barrualdeko familia baten istorioa kontatzen du. Karlistekin bat egiteko arrazoiak aletuko ditu besteak beste, garaiko testuingurua azaltzeagaz batera.

Zer da 'Somos comunión'?

Eleberri historikoa bat, abenturazkoa. Kronologikoki, azken gerra karlistan kokatzen da. Bizkaiko barrualdeko herri batean bizi den familia baten istorioa kontatzen du. Baserri batean bizi dira eta gerra hasten denean denek karlistekin bat zergaitik egiten duten

azaltzen dut. Hemeretzigarren mendean landa eremuan bizi zirenei ahotso eman gura izan diet, euren arrazoiak azaltzeko. Sarri, institutueta eta historiografian absolutismoaren defendatzaile lez

Euskal Herriko gaur egungo historia ezagutzeko, funtsezkoa da sasoi hori ezagutzea; azken finean, momentu hori zen Euskal Herriko garai forala

edo atzerakoi lez agertzen dira, baina, besteak beste, foruak defendatzea zen euren asmoa. Liberalismoak sistema berri bat ezarri gura

zuen eta baserrian bizi zirenak ez zeuden eroso hor. Beraz, badu justizia historikoa apur bat. Ados egon zintezke edo ez, baina euren arrazoiak euren ahotsetik agertzen dira nobelan, eta hori garrantzitsua dela uste dut.

Testuan narratzailea dago, orojakilea, baina beste batzuetan gauza bera pertsonaien ikuspuntutik kontatzen da. Horrek aberastasun gehiago ematen dio kontakizunari. Hain zuzen ere, protagonistek pasiotik berba egiten dutelako; nobela bat izateak erraztu egiten du hori, liburu historikoa batean neutralagoa izan behar duzulako. Hainbat gai interesgarri jorratzen da bertan; gainera, depresioa agertzen da, lesbianismoa agertzen da, baina baita estatu karlista eraikitze

eman ziren lehenengo urrats horiek ere. Horrez gainera, Oñatiko unibertsitatea, Loiolako santutegia eta halako guneak berriro ere zabaltu ziren. Euskal Herriko gaur egungo historia ezagutzeko,

'La alternativa Garat' eta 'El testamento' saiakera lez izendatzen dira, baina nobelatuta ere badaude. Bien artean ibili naiz beti.

funtsezkoa da sasoi hori ezagutzea. Azken finean, momentu horretan amaitu zen Euskal Herriak eduki duen garairik luzeena,

GAU BELTZA
HAURRENTZAKO IPUIN KONTAKETA...
OIHANA ETXEGIBEL
'IZENA DEKONA BADA'
Urriak 29
17:00etan 3-4 urteko haurrek lagundurik
17:45etan 6 urtetik gorakoak
Iurreta
Elezateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza
BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA
info@aldekoaotalora.com
Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779



'Quemar las calles'

Atara Zaratak hirugarren mikroantzerki maratoia egingo du

Maratoiaren edizio berria zapatuan izango da, 17:00etan, Sorginola gaztetxean

ANTZERKIGINTZA • A.M.
Osasun krisialdiaren ondorioz derrigorrez egin beharreko ete-naldiaren ondoren, Atara Zaratak mikroantzerki maratoia egingo du berriro. Asteburu honetan izango da, zapatuan. Antzerki festa 17:00etan hasiko da eta bertarartzen direnek 20:30ak arte eduki-ko dute aukera bertan eskainiko dituzten antzerkiez gozatzeko. "Edizio hau ekimena herriko kultur mapan egonkortzera dator eta apurka-apurka sektorearentzat erreferente bihurtzea eta ezinbesteko zita izatea desio dugu",

adierazi dute antolatzaileek. Ordu erdiro ikuskizun bi egongo dira, biak batera; publikoko kideek lau antzezlan ikusteko aukera izango dute; horretarako, ordubete eta berrogeita bost minutu beharko dituzte. Sarrerak hiru euroan dau-de salgai.

"%100 euskal ekoizpenak"
Atara Zarata antzerki konpainiak asteburuan ikusiko diren lanen kalitatea azpimarratu du. "Publikoak %100 euskal ekoizpenak ikusiko ditu: Imperfeccionismo mágico talde gasteiztarra, Eneko

Berasaluce aktore durangarra, eta antzezlan biren estreinaldiak izango dira tartean", argitu dute. Hain zuzen ere, Atara Zarata eta Culturar-t konpainiek *Quemar las calles* lana estreinatuko dute. Irati Herrerosen zuzendu du obra, eta Markel Ganboak antzeztuko du; bestalde, Aroa Blancoren eta Aitor Arabiourrutiaren *Las Paralelasek El golpe* estreinatuko du. Imperfeccionismo mágico gasteiztarrek *Euskal Western bat* lana taularatuko dute. Amaitzeko, Eneko Berasaluce durangarrak *Sobre el daño que hace el tabaco* antzeztuko du.

Iurretako literatura aztertzeko taldea martxan ipiniko dute

Saioak eguenetan izango dira; lehenengoa, urriaren 28an; 18:00etaik 20:00etara batuko dira, Ibarretxe kultur etxean

LITERATURA • A.M.
Iurretako ondare literarioa eza-gutu, aztertu eta aletzeko asmoagaz, irakurle taldea sortu gura dute Iurretako herri bibliotekan. Datorren egunean egingo dute lehenengo saioa, urriaren 28an, eta hamabostean behin batzea izango da asmoa. "Saio hauetan herriko sortzaileen zenbait lan ezagutzea da helburua", azaldu dute ohar baten bitartez. Bi orduz batuko dira, Ibarretxe kultur etxean,

18:00etatik 20:00etara bitartean. Saioak euskaraz izango dira. Herrian sorturiko genero literario ezberdinak ezagutzea da asmoetariko bat. Horretarako, "taldea ahalik eta anitzena" izateko deialdia zabalduko dute. 18 urtetik gorakoak izan beharko dute parte hartzaileek. Izena emateko, 94 681 27 26 telefono zenbakira deitu, edo *biblioteka@iurreta.eus* helbide elektronikora zein 688 863 736 whatsapp zenbakira idatzi daiteke.



Ibarretxe kultur etxea.

Gai librean

Zertaz salbu

Zentzurik eta erreparorik gabe dantza egiten dugu. Hitz egiten dugu beste uneren batean lotsak aldendu dizkigunarekin. Gustatzen ez omen zaizkigun kanta abesten ditugu. Oihuka egiten dugu berba, eta berba egitearen barruan sartzen ez diren oihuak botatzen ditugu. Kontatu behar ez genituzkeenak aitortzen ditugu. Beroaren beroaz kamiseta tolesten dugu inoiz baino azal gehiago erakusteko. Disimuluz urri dauden begirada flirtzaleak botatzen ditugu. Hurbiltzen gara edonorengana pega-pega egin da mugitzeko. Gehiago ere hurreratzen gara. Eta ez nik ez beste inork kontatu gura ez dituen beste zenbait.

Zenbat estimulu gorputz batean, buru batean, zenbat jende nola mugitzen garen ikusteko; baita gure irudia ezkutatzeko ere. Hainbeste, ze nor garen ere ahazten dugun; itxuraz, behintzat. Askapen bat da, biharamunean damu for-



Leire Vargas Nieto
Sortzaillea

Zenbat estimulu gorputz batean, buru batean, zenbat jende nola mugitzen garen ikusteko; baita gure irudia ezkutatzeko ere

Askapen bat da, biharamunean damu formako buelta ekarri ohi duen askapena

mako buelta ekarri ohi duen askapena. Baina zerengandik gura dugu askatu? Izan ere, zerrendatutako ekintza horiek eta, zehaztu ez arren, jai-giroarekin lotutako beste hainbat ez dira jendarterako arau orokorren pean guztiz gaitzesgarriak, ezpada guk geuk eraikitako

kode etiko zurrunetan oinarrituta lotsa eragiteko modukoak. Eskuarki, zorrotz betetzen ditugu geure erregelak, eta hala egiten ez dutenak aise kritikatu. Salbuespen bat ezartzeko parada eman go digun testuingurua aurkitu arte. Ukaezina da giroak eragin egiten duela, baina ukaezina da, halaber, badaudela guk geuk eraiki edo bilatutako testuinguruak. Eta agian planteatu behar genuke zerk garmatzen gure ideologia zurrun horren tarteetan salbuespenegoerak sortzeko beharra sentitzera. Gure printzipioak gizaki batentzako sostengaezinak ala haien atzeko eustazpiak uste baino hauskorragoak direla ote? Eta, horren baitan, zerk hurrera gaitzakeen bizimodu osasungarriago batera: bai geure buruari eta bai ingurukoei era iraunkorrean uhala askatzeak, edo, ideologia zorrotz batetik kritikatzeko eskubidea sentitzearen truke, tarte batez lokabetuko gaituzten aitzakien antisiaz irauteak...



Nesketan zein mutiletan, goi mailako kirolariek parte hartuko dute.

Zornotzako Nazioarteko Krosak urrezko mailako izendapen gorena estreinatuko du domeka honetan, 67. edizioan

Nazioarteko federazioak mailaka berrantolatu ditu krosak, eta Zornotzakoa goi-goian dago

KROSA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Nazioarteko Krosa nobedade handi bigaz dator asteburuan, eta biak lotuta daude; bata bestearen ondorioa da. Alde batetik, Nazioarteko Atletismo Federazioak, World Athletics lez ezagutzen denak, kros egutegia berrantolatu du eta garrantziaren arabera sailkatu ditu krosak, pistan eta asfaltoan egiten duen moduan; eta Zornotzakoari izendapenik gorena eman dio, urrezkoa. Egutegi berriaren barruan urriaren 24an, domeka honetan, egin diote tokia, orain arte urte hasieran lehiatu izan den arren.

Klubeko kideen laguntzaz gainera, 30 bat boluntarioena ere izango dute krosa antolatzeko

Zornotza Atletismo Klubak antolatuko du ekimena. Klubean argi zuten urrezko izendapenaren bila joan behar zutela: "Euskal Herrian atletismoko txapelketa bat antolatu dugun bakarrak gara eta munduko txapelketa edo Joko Olinpikoe-tan urrea irabazi duten 49 korrikalarik parte hartu dute

kros honetan. Horrez gainera, antolakuntzan esperientzia zabaldua dugu, aurtengoa 67. aldiz izango da eta", azaldu zuen Zornotza Atletismo Klubeko Juanjo Anderezek aurkezpenean.

Orain, gogor lan egingo dute erronka berriari erantzuteko. "Aurtengo gure benetako erronka ekimena ondo antolatzea izango da hurrengo urteetan izendapenari eusteko, baina esperientzia handia dugu eta denak ondo irtengo duen esperantza dugu", adierazi zuen Anderezek. Klubeko kideen laguntzaz gainera, 30 boluntarioena ere izango dute.

"Aurtengo gure benetako erronka ekimena ondo antolatzea izango da, izendapenari eusteko"

Joan direnak gogoan

Zornotzako krosa jende askoren ahaleginari eskerrak heldu da gaur egunera arte, eta horiek gogoratu gura izan zituen Anderezek. COVID-aren ondorioz hil den Jesus María Vilella da eurretari bat; Miguel Bilbao, Jose Mari Guinea, Juanjo Ziarrusta eta Javi Ormaetxe ere gogoratu zituen.

Asteburuan kros asko dagoen arren, goi mailako atletak datoz

Ume, gazte eta nagusi kontuan hartuta, domekan 12 lasterketa jokatu dira Jauregibarriako landan. Lehenengo krosa 09:40an hasiko da. Proba herrikoia eta kirol egokituko ere ez dira faltako.

Nagusien lasterketak eguerdian izango dira: 12:15ean emakumeena, eta 12:50ean gizonena.

Pandemiaren ondorioz, urte hasieran egitekoak ziren lasterketa asko sasoi honetara atzeratu dituzte. "Asteburu honetan dozena bat kros egongo dira, batzuk maila handikoak", dio Anderezek. Horrek zaildu egin du izen handiak ekartzea, baina, hala ere, goi mailako atletak datoz: gizonetan, munduko kros txapelketan 10. amaitu duen Joel Ayeko ugandarra eta Tokioko jokoetan 3.000 metroko oztopo proban bosgarren geratu zen Yemane Haileselassie eritrearra; bestalde, emakumeetan, juniorren munduko txapelketan laugarren izan den Dolshi Tesfu eritrearra ere badator.

Inoizko parte hartzerik handiena itxaroten dute Berrizburun egingo den Berrizko ziklo-krosean

Aurten, lehenengoz, infantilek eta alebinek parte hartu ahal izango dute; Txiki Kopako lasterketa bat izango da



2019ko ziklo-kros proba.

ZIKLO-KROSA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtebeteko etenaren ondoren, Berrizko ziklo-krosa nobedadez josita eta inoizko parte hartzerik handienagaz bueltatuko da. Domekan, 10:00etan hasita, Berrizburuko zirkuituan zehar 400 bat txirrindulari ibiltzea aurreikusten dute antolatzaileek. Aurten, Euskal Herriko egutegiko lehenengo lasterketa izango da eta, gainera, estatu mailako proba izango da.

Baina hori ez da nobedade bakarra izango. Bizkaiko Txirrindulari Federazioak bultzaturiko Txiki Kopari eskerrak, aurten infantilak eta alebinak ere

lehiatu ahal izango dira Berrizko ziklo-krosean. Txiki Kopa zortzi lasterketaz osatuta egongo da eta Berrizkoa denboraldiko lehenengoa izango da.

Bestalde, Berrizko alkateak eskerrak eman dizkie Berriz Bizikletari Elkarteko kideei. "Udal modura oso pozik gaude Berriz Bizikletari Elkartegaz, elkarlanean Berrizko ziklo-krosa berreskuratu dugulako. Eurei eskerrak daukagu herrirako garrantzitsua den ekimen hau, boluntario hauen lanik barik ezinezkoa izango zen-eta proba egitea", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak.

BERRIZKO ZIKLO KROS SARI NAGUSIA

URRIAK 24
berrizburun

Kadete 12-13 urteak

Infantile 10-11 urteak

Gazteak 14-15 urteak

Alebin 16-17 urteak

Emakumeen opena 18-39 urteak

Sub-23 eta Elite 20-39 urteak

Master 40-49 urteak

Deia **kutxabank** **dinamika** **Taes** **ALKIMAX**

anboto **3ME** **VCG** **Egun'in** **mazda** **Norkar**

www.berrizbizikletarielkartea.com



Gaituz Sporteko, Durangoko Udaleko eta Kiroleneko ordezkariak atzoko aurkezpenean.

Urriaren 28an eta 29an Kirolene Film Fest jaialdia egingo dute Durangon

Film laburrik onenak saritzeaz gainera, naturari eta kirolari loturiko hainbat lan eskainiko dute

JAIALDIA • JOSEBA DERTEANO

Natura eta kirola uztartzen dituzten abenturazaleei euren esperientziak zabaltzeko aukera eskaintzen die Kirolene Film Fest Jaialdiak. Aurtengo laugarren aldia urriaren 28an eta 29an egingo dute, San Agustin kulturgunean. Aurtengo nobedade bat da sarrera doakoa izango dela. Sarrera San Agustin kulturgunean eta Arte eta Historia Museoa eskuratu daiteke, astelehenetik aurrera.

Urriaren 28ko ekitaldia saririk izan ez duten baina aipamena merezi duten film laburrak eskainiz hasiko dute. "Maila handiko lanak egon dira eta errekonozimendua merezi dute", nabarmendu du Kiroleneko Kimetz Iturraldek.

Horren ondoren, natura arloko kirolei eta arlo horretako formakuntzari bizia eskaini dien Juan Antonio Laredo donostiarra omenduko dute.

Aurten sarrera doakoa da; sarrerak San Agustinen eta Arte eta Historia Museoa eskuratu daitezke

Gainera kirol askotako formakuntzan "aintzindaria" izan da, Iturralderen esanetan. Eguna errematatzeke, *La montaña del alma* izeneko dokumentala eskaini-

ko dute. Gazte batzuek izandako enpresa-ideia batean du sorburua dokumentalak. Elurretan galduriko jendearen bilaketa erraztu dezakeen gailu bat lantzen dabilta, eta behin, Alex Txikonen espedizio batera batu ziren gailu hori mendi garaietan probatzeko. Dokumentalak orduan bizitako esperientziak batzen ditu.

Urriaren 29a jaialdiko ekitaldi nagusiagaz hasiko dute: film labur sarituen sari banaketa. Film sarituak ikusteko aukera egongo da.

Ondoren, Kirolenek eta GaituzSportek landuriko ikus-entzunezko bat landuko dute, inklusioa eta genero ikuspegia oinarri dituen. Dokumental horretako protagonista Nilofar Bayat da. Af-

Egitaraua

Urriak 28, 19:00etan, San Agustin kulturgunean

- Saria irabazi ez arren, aipamen berezia merezi duten film laburren emanaldia.
- Juan Antonio Laredori errekonozimendua.
- 'La montaña del alma' ikus-entzunezkoaren emanaldia.

Urriak 29, 19:00etan, San Agustin kulturgunean

- Kirolene Film Fest-eko sari banaketa eta lan sarituen emanaldia
- Nilofar Bayat-i buruzko ikus-entzunezkoaren emanaldia.
- Durangaldeko 'Elur Goritan Kamchatka' ikus-entzunezkoa.

ganistanetik ihes egin beharrean izan da eta Bilbon amaitu du. Bilbao Basketeko gurpildun aulkiko saskibaloj jokalaria da orain.

Azkenik, Durangaldeko lagun batzuek 2019an landutako *Elur Goritan Kamchatka* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute San Agustinen.

Jokaldia

Zantzuak!

Arazo baten larritasunaren berri eman diezaguke; artatu beharreko eritasuna edo mina. Azken urteetan areagotzen ari den sintoma bat hedatzen ari da ziklista gazte eta ez hain gazteen artean. Inoiz idatzi eta hitz egin dut gai honen inguruan, baina egun hauetan entzun eta irakurri ditudanek egonezina sortu didate. Ziklismoa kirol ederra eta pasioz beterikoa da. Norbere buruarekin bat egiteko aukera ematen du, baita gogobete ere. Elitean, aldiz, beste aldagai batzuek hartu dute indarra. Pairatzen duten bizi-modua jasangaizta egiten zaie profesional izatearen ametsa bete nahi duten askori. Iaz Tom Dumoulinek kito esan zuen; aurten beste maila eta helburu batzuekin itzuli den arren. Fabio Aru sardiniarrak 31 urterekin bizikleta eskegitzea erabaki du, gaur egun mirabe izatea eskatzen



Alfontso Arroio Monasterio
Kirol kazetaria

"Azken urteetan areagotzen ari den sintoma bat hedatzen ari da ziklista gazte eta ez hain gazteen artean"

"Mikel Alonsok 25 urterekin, Jon irisarik 26 urterekin eta Xabier Muriasek 22rekin hartu dute erabaki gogor hori"

duelako. Egonaldi luzeak, nutrizioak hartu duen aparteko garrantzia, dena neurtu behar horrek ito egin duela dio. Goi mailan urte dezente egin duenari hori entzutea logikoa da; ez hainbeste, ordea, gazte bati. 17 urterekin Marius Knightek txirrindularitza uztea erabaki zuen udaberrian. Pisuaren diktaduraren

ondorioz, bulimia zuela onartu zuen. Bazkalostean, berehala botaka egitera komunera joaten zela esan zuen. Theo Nonnez frantziarrak ere laga du, 21 urterekin. Etorkizun oparoa zeukan ziklistak ezin izan du gehiago; ziklismoa amesgaizto bihurtu dela esatera heldu da, hiperprofesionalismoaren aroa dela azpimarratuta. Fisikoki eta psikologikoki lehertuta amaitu du. Euskal Herrian ere izan dira sasoi bukaera honetan agurtu diren txirrindulariak. Mikel Alonsok 25 urterekin, Jon Irisarik 26 urterekin eta Xabier Muriasek 22rekin hartu dute erabaki gogor hori. Deigarria hiruren adina. Bizitza begi aurretik pasatzen eta zerbait galtzen ari diren sentipenarekin eman dute azken denboraldia. Aske sentitzen omen dira orain. Larregizko profesionaltasuna, gehiegizko kontrola; pertsonak bainoago robotak. Hausnarketarako gaia.

DURANGALDE



Izurtzako harraska

Izurtzako Bitaño auzotik behera, pinudi artean bere garaian harraska lez erabiltzen zen gune bat dago. Asfaltozko bihurguneetan gora eta behera dabiltzan oinezkoek zein bizikletazaleek atseden hartzeko baliagarria ere bada orain leku hau, ur trago fresko bat hartzeko.

KO TXOKOAK!

San Andreseko ermita

Mugarrenen magalean, Neberondora bidean, eta San Andreseko merenderora heldu aurretik, atsedenaldira bat egiteko aukera eskaintzen du bide izkinan dagoen ermitak. Bertatik, Durangoko ikuspegi ederraz gozatu daiteke eguneko edozein momentutan.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com




AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



AUKERA
AUKERA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara.
186.000 € C.E.E=F



DURANGO
JESUITAK: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handiak. Erdialdean. Ganbara. Eguzkitsua.
199.500 € C.E.E=G



DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzera sartzeko moduan.
C.E.E=G garajea aukeran.



AUKERA
AUKERA: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 Logela, komuna, sukaldea eta egongela. Bizitzera sartzeko moduan.
117.000 € C.E.E= F



MATIENA
MATIENA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Berriztatua.
149.000 € C.E.E=F



DURANGO
MADALENA: 132 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara eta trasteleku / bodega. Garajea.
286.000€ C.E.E=F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA

ALOKAIRUAN


BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.


www.inmoduranguesado.com



MATIENA
3 logela
65 m²
TRAÑABARREN HIRIBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebalde). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m²-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
175.000 € C.E.E:E negoziagarria



MUNTSARATZ
2 logela
66 m²
ARLOZABAL: 17 urteko antzinatasuna: Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebalde) Argitsua. Leku onean kokatua. 15 m²-ko trastelekua. 18 m²-ko garajea. Ezin hobea.
217.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
3 logela
115 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, jantzeko gela, 2 komun eta 2 m²-ko despentsa. Balkoi itxia. Pisu altua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea), argitsua eta ikuspegi ederrekin. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbiztu eremuak. EGOERA ONEAN. Garaje handia eta trastelekua. Igogailua.
320.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
79 m²
3 logela
IPARRAGIRRE: Egongela, sukalde jantzia, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebalde) ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
245.000 € C.E.E: E negoziagarria



BERRIZ
3 logela
79 m²
MAZAGA: Egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. 40 m²-ko ganbara. (etxebizitzaren gainean). Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (mendebalde) Berriztatzeko. Ezin hobea norbere gustura jartzeko. Leku lasaia. Igogailua.
119.000 € C.E.E:F



DURANGO
52 m²
ANTSO ESTEGIZ: 52 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. Herrigunetik oso gertu. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Igogailua.
155.000 € C.E.E: E

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

· Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)

· Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

· Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 22 · 09:00-09:00 ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA ZAPATUA, 23 · 09:00-09:00 BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA 09:00-13:30 DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO SARRIA Sasikoa 17, DURANGO LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA 09:00-14:00 IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	DOMEKA, 24 · 09:00-09:00 DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA ASTELEHENA 25 · 09:00-09:00 SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA MARTITZENA, 26 · 09:00-09:00 MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA EGUAZTENA, 27 09:00-09:00 IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA EGUENA, 28 · 09:00-09:00 NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Aroa Pujanak, gure etxeko txikitxoak, urriaren 20an 6 urte egin ditu. Bederatzi egun geroago, urriaren 29an, aitatxo **Aitorrek** ere urteak egingo ditu. Zorionak bioi! Musu handi bat familiaren partez.



Zorionak, potxolak! 9 urte pasatu ditugu elkarrekin eta askoz ere gehiago geratzen zaizkigu. Musu potolo bana etxeko guztien partez!



Zorionak, **Uraitz**, familia osoaren partez, batez ere, zure lehengusina Udane, Izar eta Ibairen partez. Maite zaitugu, muxutxu pila-pila.



Nahikarik 8 urte egin ditu. Zorionak etxekoen eta neba Luarren partez.

Eguraldia					
ZAPATUA	17° / 4°		ASTELEHENA	18° / 7°	
DOMEKA	21° / 6°		MARTITZENA	17° / 9°	



clínicadental

hartzklinika

b. unamunzaga e. etxebarría

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

“Musika talde batzuekin hartu-eman berezia sortu da eta horrek bete egiten nau”

Carlos Olabarriagak zuzeneko kontzertuak grabatzen ditu bideoan, eta MrMusika izenpean youtuben ipintzen ditu. 150 musika talderen 200 bat bideo ditu batuta



Carlos Olabarriaga
Gerrikabeitia

MrMusika

ZALDIBAR | 1956

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Carlos Olabarriaga ezagun bihurtu da Euskal Herriko hainbat gaztetxe eta aretotan. Metal, punk eta, batez ere, hardcore estiloko kontzertuak grabatzen ditu, gero MrMusika izenpean youtuben ipintzeko. Pandemiak eraginda iaz kontzertu bakarra grabatu zuen arren, hasita dago agenda betetzen. Bartzelonan, Oviedon eta Frantzian ere ibili da grabatzen.

Zer dago MrMusikaren atzean?

MrMusika 2016an sortu zen, seme gaztearen Worth It hardcore taldearen kontzertuak jarraitzen hasi nintzenean. Argazkiak ateratzera joaten nintzen. Kontzertuak mugikorrek grabatzen zituz-

tela ikusi nuen, eta taldeek irudi horiek erabiltzen zituztela euren sareetan zabaltzeko. Bada, kontzertuak irudi eta soinu kalitate on bategaz grabatzea pentsatu nuen. Halaxe hasi nintzen. Taldeak oso eskertuta ikusi nituen, jendearen artean ere arrakasta zutela ikusi nuen eta aurrera jarraitu nuen.

Afizioz zoaz kontzertuak grabatzera. Zein da helburua?

Afizioz noa, bai, eta sarrera ordainduta (barrez). Argi dut taldeei laguntzeko modu bat dela. Oso ondo pasatzen dut, gainera. Eta taldeek hala gura badute, grabazio horiek erabili ditzakete. Halantxik jaio zen MrMusika, bestelako prentsiorik barik. Ia 200 bideo ditut

jasota, 150 musika talderenak. Gauza txukun bat egiten ahalegintzen naiz eta grabazioak editatu egiten ditut, soinua eta irudia.

Argi dut taldeei laguntzeko modu bat dela. Eta oso ondo pasatzen dut. Gainera, taldeek hala gura badute grabazioak erabili ditzakete

Esan behar dut talde batzuekin hartu-eman berezia sortu dela, eta horrek bete egiten nau. Kontzer-

tuetara joaten ez direnentzat leiho bat ere bada.

Gaztetxeetan hasi zinen. Batek baino gehiagok harrituta begiratu zintuen. Bai. Gogoan dut Basauriko Txarras-ka gaztetxera joan nintzenekoa. Ez nuen inor ere ezagutzen, eta inork ere ez ninduen ezagutzen. Zurrumurruak, begiradak... sentitu nituen, zelatatzeraz zihuan gurasuren bat nintzela pentsatuko zuten! Taldearengana joan eta nor zaren azalduta apurtzen da zalantza eta giro hotz hori. Jende helduagoa dabilen gaztetxeetan, txapela jantzi eta oharkabeago pasatu naiz.

Izan duzu inoiz arazorik grabatzeko?

Ez. Bad Religion eta halako talde handiekin ere ez. Hartu-emana badut, alde aurretik galdetzen diet. Bestela, youtuben jaso aurretik, mezu bat bidaltzen dut kontzertuaren zati bat grabatu dudala esateko. Normalean, eskertu egiten dute.

Kontzertuko azken zatia grabatzen dut. Aurretik, entzuteko eta zelan mugitzen diren ikusteko aprobetxatzen dut

Kontzertuko azken zatia grabatzen dut. Aurretik, entzuteko eta zelan mugitzen diren ikusteko aprobetxatzen dut. Propagandhi Gasteizera etorri zenean, salbuespena egin nuen. Oso kontzertu gutxi ematen dituzte, gax da zuzenean entzutea, eta osorik grabatu nuen.

Zergatik hardcore estiloa?

Seme gaztearen eskutik hasi nintzen hardcore mundua apur bat ezagutzen, eta harrapatu egin nau. Publikoa dantzan dela sortzen den giroak eta taldeak bat egiten dute. Elkarren arteko kontaktua behar dute. Lehenengo ilaran egoten naiz, publikoaren eta taldearen artean. Bestela, ezin da hardcorearen esentzia grabatu. Badut grabazioen bat ni neu hankaz gora jausita, atzera eta aurrera eramaten zaituzte eta. Gaztetatik deneriko musika gustatu zait; sasoi batean jazzak ere asko erakarri ninduen. Inoiz ere ez dut arazorik izan musika estilo berri bat entzuteko.

Lau-hortza

Bixente Alizpurua
Eguren
Irakaslea / Jubilatua



Diru-laguntzak

Gure politikoak hor azaltzen zaizkigu gure bizimodua hobetuko duten zenbait diru-laguntza onartu dituztela adieraziz, baina gauza bat da teoria eta beste bat praktika. Askotan diru-laguntza horiek eskatu ahal izateko master bat egin behar izaten da, ulertezinak direlako. Esaten dudana horrela dela ikus dezazuen hor doazkizue adibide batzuk:

Argi dago gure artean jaiotza tasa nahiko baxua dela eta Euskal Herria gero eta zaharragoa dela. Horri konponbidea emateko eta jaiotzak bultzatzeko, laguntzak kaleratu dituzte: aita eta amatasun baxak luzatuz, umeko eta adin batera arteko laguntzak, familia bateragarritasuna, ...

Laguntza eskatu, baina nahi dutena eman edo laguntza ukatu ondo ez eskatzeagatik.

Ikasteko bekak, neba-arreben kasuan, bati eman eta beste bati ez. Edo dokumentazioa falta dela eta berriz bidali eta erantzuna, ezetza. Nork ulertu?

ERTEak, udal batzuek komertzioa bultzatzeko ematen dituzten laguntzak, etab. Egoki eskatu ez denez, ukatu.

Eta horrela luzaroan jarrai dezaket.

Zergatik ez da jartzen zerbitzu bat honelako laguntzak jaso nahi dituztenei laguntzeko edo nondik nora joan behar duten aholkatzeko?

Badakit udal txikiek ez dutela honelako zerbitzu bat jartzeko gaitasunik, baina hor dago Mankomunitatea.

Administrazio publikoa herritarrei laguntzeko sortua bada, jar ditzala baliabideak laguntzeko, eta ez trabak jartzeko.

Ea lasterrera Durangaldeko Mankomunitateak aholkularitza hau martxan jartzen duen, herritar askok eskertuko lioke.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com